


Hamaika Litera



URRUZUNO Literatur Taldea osatzen

dugu: Mikel Artolak, Iñigo Otañok, Jasone

Osorok, Jon Eugik, Jon Garatek, Unai

Villena, Amaia Urzelaik, Eguzkiñe

Aranberrik eta Joseba Esnaolak.

Itxura, Maite Rementeriak eman dio.

500 ale atera ditugu Oñatiko GERTU

inprimategian.

HELBIDEA: BARREN astekaria.

Nafarroa enparantza, 2.

20870 ELGOIBAR.

Tel. 943 74 41 12

EX ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

HAMAIAK LITERAK honako
erakundeen dirulaguntza jasotzen du:

Elgoibarko Udala

Eusko Jauriaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia



Kaixo irakurle!

"Hamaika Literaren" laugarren alea duzu esku artean. Aurrekoa bezala, oraingoan ere ale berezia argitaratu dugu urruzunotarrok. Izan ere, iazko urrian Ekekei antzerki Taldeak Elgoibarren antolatutako Antzerki Amateurraren topaketetan eskaini genuen poesia emanaldia duzu irakurgai ale honetan. "Hamaika kontu literatan" izeneko saioa orri hauetara ekartzea bururatu zaigu, emanaldian izan ez zinetenek hartaz gozatzeko aukera eduki dezazuen. Ale honetan Amaia Urzelai, Unai Villena, Ion Garate, Iñigo Otaño, Jon Eugi eta Joseba Esnaola taldekideon poemak dituzue eta baita Eduardo Galeano, Lourdes Oñederra, Gerardo Markuleta eta Joseba Sarrionandia idazle ezagunenak ere. Irakurri eta goza!



Los sueños de Helena

Aquella noche hacían cola los sueños, queriendo ser soñados, pero Helena no podía soñarlos a todos, no había manera. Uno de los sueños, desconocido, se recomendaba:

- *Suéñeme, que le conviene. Suéñeme, que le va a gustar.*

Hacían cola unos cuantos sueños nuevos, jamás soñados, pero Helena reconocía al sueño bobo, que siempre volvía, ese pesado, y a otros sueños cómicos o sombríos que eran viejos conocidos de sus noches de mucho volar.



Hitza esaten ez denean...


*H*itzek, esan behar direnean barruan gelditzen badira barrenak ustel dakizkigukete, gure baitan erre daitezke mututasuna sortuz. Eta nik ez dizut hitz txarrik esan nahi, eta nik, nik hitza erabili gura nuke edozeinek entzungo balit. Nik hitza darabilt zuretzako; entzutea gogoko duen edozeinentzako. Zuzena izan nahi nuke diodanean eta ekintzetan, baina batzutan, gehiegixotan, ia beti, naizela uste dudan (edo besteek uste duten) pertsona hori izan ezik beste edozein naizela iruditzen zait. Hitzez deskriba ezin dezakedan norbait.



BAKARDADEA

Bakardadea,
 barrutik ireki ezin den
 gela estu batean preso
 egotea bezala da,
 jakinik
 bertatik ihes egitea
 lortuz gero
 beste gela estu batean
 sartuko garela,
 berriro ere preso;
 eta gela honetatik
 ihes eginez gero
 beste gela estu bat
 aurkituko dugula,
 aurrekoen antzekoa;
 eta horrela jarraituko dugula
 etengabe eta ezinbestean...

Bakardadea,
 geure barnean ditugun
 gela guzti horiek
 behin eta berriz zeharkatzean
 sentitzen duguna da,
 geure baitan preso,
 kanpora daraman atea
 aurkitu ezinik.





EZ DAKIZUT ESATEN

*B*ikote gara,
zarete,
garete.

Ez dakizut esaten.

Badirudirudi
ez nagokizula;
Badirudirudi
ez zagozkidala.

Tira,
Deituko dizudazu.



ILARGI BETEA



Ikar ezagutu berri dute, hitz baino begirada lizun gehiago trukatu eta dantzalekutik irten dira kea, zarata eta jendetza barruan utzita. Eskutik helduta doaz, irribarretsu, batbatean zerutik datorren trumoi baten antzeko zarata entzun dute eurei abisuka bezala. Gelditu egin dira, ekidin ezineko keinu instintibo eran gorantz egin dute so, baina ez dute euria iragartzen duen laino beltzik ikusi, ilargi betea baizik. Eta bista jęitsi eta bideari berrekin diotenenean,

- Zeinen polita den ilargi betea! -esan dio neskak mutilari, bera ere hori pentsatzen ari den ziurtasunaz.

- Bah, babokeriak, ilargia ez da polita; ilargia hor dagoen zerbait da. -bota dio honek lehor.

"Hor dagoen zerbait?" errepikatu du gizonak bere kautan eta ibiltzen jarraitu dute isil-isilik. "Noşki hor dagoela beti, baina horrek edertasunik kentzen ote dio? Itsasoa ere hor egon da beti eta inork ukatuko al luke liluragarria denik?".

Badoaz aurrera, isiltasunean. Hondartzara heldutakoan larrua joko dute itsaso liluragarri horrek inguraturik, ilargi betearen begiradapean, eta

apenas galdetuko diote ezer
 batak besteari, euren gor-
 putzak lengoaia ulertezi-
 nez mintzatuko baitira
 elkarrekin. Eta gustu-
 ko izango dute senti-
 pena, baina bihar
 elkar ikusiz gero,
 lehenengo soaldian
 behintzat kosta egingo



zaie nori begira dauden asmatzea, eta agurtu eta
 gero, plazer berrien bila jarraituko dute lokal berean, edo besteren batean,
 munduko edozein lokaletan, edozein hiritan, edozein herrialdetan, hondar-
 tzan edota belaze freskoren batean, betea ez den ilargiaren begiradapean,
 larrutan egingo dute.

Gaurko ilargi betea aitzakia bat besterik ez zen. Ekintzarik gure baita-
 koenek, ulertu eta aditzera eman ezin direnek, zerbaitek barren-barrenetik
 bultzatuta zergatik jakin gabe gauzatzen ditugun horiek, aitzakia baten
 beharrik izaten dute askotan. Ilargi betea edozertarako aitzakia da.

Belar gainean etzanda nago. Nekatuta sentitzen naiz, egarri. Lo beharra daukat. Egunsentian etxeratu naiz Eta orain, eguardian, mendian, erdi lo nago. Eguzki izpiek nire bizkarra laztandu nahi dute. Eta kamiseta kentzea erabakitzen dut. Kotxeko ateak zabalik daude. Jimmy Jazz kanporatzen dute.


Buruz behera dago. Begiak itxita eta betaurrekoak jausi beharrean. Kendu egiten dizkiot. Bizkarrak ezin du biluzik jarraitu. Kotxera noa kremaren bila. Beragana hurbildu eta mendiko botak kentzen dizkiot. Noizbait beltzak izan ziren bakeroen gainean nago, erdi eserita. Eguzkitako krema eskuetara bota eta gerria igurtzen hasten naiz. Poliki-poliki, astiro-astiro, goruntz noa. Bere lepoa laztantzen dut. Bizkar hezurra ferekatzen . Bere zirrara sentitzen dut. Nire arnasa arintzen da.

Goruntz begira jarri naiz. Alboan dago orain, jada ez dago eserita.

Nire niki beltzak eguzkia erakartzeko daukan indarra gogoko dut.

Gorputza leunki ferekatzen diot. Hilean jolasean nabil.

Eguzkia izkutatzen hasten da.



*O*raina bizi, ahaztu etorkizuna.

Gozatu momentua, ez laga gerorako.

Aukera galtzen baduzu,

ez duzu besterik izango.

Edozein unetan, edozein gauzatan

diberti zaitezke,

ez da batere zaila,

probatu ezazu.

Zure edozein zaletasunek

monotonia hauts dezake

eta kolorea eman diezaioke egun grisari.

Ez sinistu promesa faltsurik:

Zerua lurrean dago,

bilatu eta aurki ezazu.



Esan didate,

muxua

inoiz asmatu den onena dela.

Imajinatzen ditut,

gure ezpainak

bat eginik.

Imajinatzen dut,


nire gorputza, laztandurik.

Bere gorputzaren beroa


te nere xua, ahoa,

ta bere bizkarra

lepoa, bularra, eskua.



Amaia Urzelai



Konturatu naiz,

ahorik gabe

sexuak galduko zuenaz.

Sexu goxoak.

Txokolate goxoak

egongo etzirela

eta kafea, eta marrubiak.

Pentsatu dut,

elkarrizketarik,

egongo etzela

Irratirik,

hitz goxoak

jasotzen dituen

belarrik.

Maitasun istorio bat

Goizean goiz abiatu zen bikotea Berazeta aldera. Lehenbiziko zita zen, eta urduri zeuden hasieran. Mutilak, neska liluratu nahirik, xuabe xuabe hitzegiten zion, eta bide bazterretako lorerik ederrenak ematen zizkion. Laster, neska ziur zegoen mutil fin hura bere ametsetako printze urdina zela. Armonia goxoan eta berriketa idilikoetan joan zitzaizkien orduak. Herrira itzuleran eskutik helduta zetozen. Arregitorre kaleko eskilarak jaistearekin bat, ordea, okinaren furgoneta hurreratu zitzaien, eguerdiro bezala bozina jo eta jo ari zela, infernuzuloko zarata ateraz. Orduan, mutilak, suak hartuta, zera oihukatu zion gidariari:

- Mekauen tu puta madre!!!

Neskak izututa begiratu zion.

Uste dut ez direla berriro elkarrekin irten.



Los sueños olvidados

Helena soñó que se dejaba los sueños olvidados en una isla.

Claribel Alegría recogía los sueños, los ataba con una cinta y los guardaba bien guardado. Pero los niños de la casa descubrían el escondite y querían ponerse los sueños de Helena, y Claribel, enojada, les decía:

-Eso no se toca.

Entonces Claribel llamaba a Helena por teléfono y le preguntaba:

- ¿Qué hago con tus sueños?




Bidea luze

Bidea luze, eta hutsak gutxi.

Aurrera noa,
aurrerantz jarraitzen dut,
egunero nere bidea egiñez.
Beste aukerarik ez dago,
denboran zehar aurrera egin.

Aurrea,
geroa,
ilusioa,
bizitza;
pozez,
alaitasunez,
zorionez.



Ez naiz hemen bakarrik egoteko,
bakardadea, askotan,
beharrezkoa izan arren.

Hemen nago,
aurrera egiteko gogoz,
hemen naiz,
aurrera egiteko asmoz.

Umore txarrentzako erremedioa

*B*arrenak kiskaltzen dizkiken
umore txar hori daukakenean,
uste duk eta ziur hago
ez zegokela poesiarik
ez olerkirik
baretuko hauenik munduan.

Aldika-aldika eta arrazoi garbirik gabe
etorri ohi zaiken malaostia hori,
potroetarainoko egonezin hori
daukakenean,
ez zegok inspirazio edo gogoetarik
norbaiti lepotik heldu, estutu, kiribildu
eta ezinbestean begiak aterarazteko ez bada.

Asko inporta zaizkik orduan
poesiaren balio estilistiko
eta filosofikoek,
ridikuloek.



Baina pentsa ezak une batez,
 zein gozoa izan behar diken
 poema handinahi eta harroputz bat hartu
 eta txikitzea, deuseztea, akabatzea
 erremediorik gabe eta betirako
 malaostia hori berarekin batera kanporatuz.

Egizak,
 txikizak poema iraingarri, harroputz
 eta gainera trakets hau,
 jarraiook hire senaren pizti basatienari,
 neuk uzten diat eta,
 nire baimena daukak.

Baina aurretik esaten diat
 ez dukela umore txar hori kanporatuko
 harik eta hire poema propioa egiten hasi
 eta bide erdian
 neu bezalako babalore bati kasu egiteko
 zein kaikua izan haizen ohartu arte.

Orduan gustu handiz apurtuko duk poema
 eta umore txar hori
 barregarri sentiaraziko hauen
 sentsazio batek ordezkaturiko dik.

AUTOMATA (Sarrionandiaren moldaketa)

Beti izan zen gizon fina eskulanetarako. Etxean, lanetik bueltan, arte-fakto mekanikoak diseinatu eta eraikitzen zituen. Hasieran jolas gisa, baina konturatu orduko fregatua egiten zekien tresna bat osatu zuen.

"Hik baino hobeto egiten din!", esaten zion emazteari, harrotuta.

Emazteari ez zitzaion gustatu hasieran, baina laster etxeko lanetarako lagun aparta bihurtu zitzaion morroi mekanikoa.

Hasieran fregatua bakarrik egiten zuen, baina hirulau tornilo ondo lotu zizkionetik automatik lurra garbitu eta oheak egiten ere ikasi zuen. Handik egun batzutara, pieza batzuk ondo olioztatu eta gero, janaria prestatzen ikasi zuen, eta sukaldari ikaragarri ona zen.

"Hik baino hobeto egiten din!" esaten zion gizonak andreari, puztuta.

Lortutakoarekin konformatu gabe, gizonak automata gehiago perfektzionatu zuen. Horrela erakutsi zion hitzegiten eta gizaki baten naturaltasunez portatzen. Lan honetan emazteak borondate onez lagundu zion.

Egun batez, lanetik itzuli zenean, etxean ez zuen inor aurkitu. Salako mahai gainean emazteak idatzitako ohar bat bakarrik zegoen:

"Hik baino hobeto egiten dik!"

Zure begiek ...

Hotza nire ahotsa,
epel ezpainak.
Zure begi disdiratsuak ikustean,
gelditzen naiz guztiz itsu.
Dardara eskuetan,
bihotzaren taupadaz
buruan amets;
ezin esan
ez ezetz,
ez eta baietz.



ITXAROPENA

Ez du merezi
 penatzeak,
 goibeltzeak.
 Ez du merezi
 saminduran murgiltzeak.
 Ez du merezi
 arduratzeak.
 Ez du merezi, ezta ere,
 bizitzak
 lasaitasuna
 haustea.
 Zeren eta
 bihar ere
 izanen baitira
 mendiak
 egunsentiak
 ilunabarrak
 eta itsasoak.



Zeren eta
 bihar,
 edo etzi,
 Lurretik
 ezabatu
 eginen baitira
 oinazea
 gosea
 eta pobrezia.
 Ez,
 ez du merezi
 itxaropenik gabe egoteak,
 bihar,
 edo etzi,
 edo etzidamu,
 amodioa
 eskuzabala
 izanen delako
 guztiontzat.



"Eta emakumeak sugeari esan zion" liburutik

*Z*u, ez zara aspertu, ez zara aspergarri izan ere.

Inoiz ez. Ez zu, ezta bera ere. Ez, bera ere ez da aspertu ziurrenik.

Bakoitza zuen aldetik ez, biok elkarrekin agian.

Ez diren gauzak


Litezkeen gauzarik ederrenak
ez dira.

Mezurik sakonenak ez dira
oraindik esan.

Herrialde gehienak herrialde
ezezagunak dira.

Ez den zenbat gauza, ez den
zenbat jende den munduan.

Ez den herrialdean sortu ginen
eta, geu ere,
izan, esan gabe doa, ez garena
gara.



Dena gabezia, dena atzetasuna,
dena bitartea,
dena hutsaldia, dena aldartea,
dena lekutasuna.

Eta egiteko gehienak egiteke
ditugu.

Poemarik behinenak izkiriatzeko
daude...

Ez diren gauzak ere
badira.

Bizitza, ez diren gauzez ere
osatzen delako.

El adiós de los sueños

*L*os sueños se marchaban de viaje. Helena iba hasta la estación del ferrocarril. Desde el andén, les decía adiós con un pañuelo.



